

## OIZPE PILOTA TALDEA - COVID-19 KUTSAPENA SAIHESTEKO PROTOKOLOA

Elkartek Berrizko Udal frontoia 2020ko irailetik 2021ko ekainerako epean erabili ahal izango du entrenamendu (1.protokoloa) eta lehiaketak (2.protokoloa) antolatzeko.

Denboraldi desberdin honetan COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den prebentzioari buruz Eusko Jaurlaritzak emandako aginduek eskatzen dituzten osasun arloko eta osasun segurtasuneko prebentzio-neurri guztiak jarraitzeko konpromisoa hartzen du gure elkarteak. Zehazki, Elkarteak honako protokolo hauek betetzeko konpromisoa hartzen du.

- Elkarteko osasun arduraduna Gorka Otadui izango da eta berak komunikatuko dio udalari edozein gora behera.
- Elkarteak jendearentzako sarbidean eta irteeran pilaketak saihestu beharko ditu, betiere modu ordenatuan egingo direla ziurtatuz, pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruzko indarrean dauden neurriak mantenduz. Horretarako, instalazioaren sarrera eta irteeretan behar diren laguntzaileak eta kontaketa-materiala eduki beharko ditu.
- UDALAK lehiaketa egiteko protokoloaren eta pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurrien berri eman beharko du, frontoian informazio-kartelak jarritz.
- UDALAK garbiketa eta desinfekzio sakona egingo du erabiltzen diren lekuetan.
- UDALAK eskuak garbitzeko beharrezko elementuak izan beharko ditu instalazioaren sarreran.
- Elkartearen ardura izango da pilotariek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta lehiaketatik edota entrenamenduetatik kanpo maskara erabiltzeari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.
- Elkartearen ardura izango da teknikariek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.

### Lehen protokoloa (entrenamenduak)

Elkarteak UDALArekin erabilera ordutegi zehatzak adostu ditu.

MODALITATEA	ENTRENATZAILEA	PILOTARIAK	EGUNAK	ORDUAK
Esku-pilota (federatuak)	Gorka Otadui (686146372)	Iker Elkoro Ander Lejarazu	Astearte eta ostegunak	17:00-18:25
Esku-pilota (federatuak)	Gorka Otadui (686146372)	Iker Elkoro Ander Lejarazu	Ostiralak	19:00-21:00
Esku-pilota (eskola kirola)	Gorka Otadui	Zehazteko...	Astelehen, Asteazkena eta Ostiralak	16:30-19:00
Gomazko paleta	Mikel Laskurain (634403743)	Jone Askasibar Paula Romero Enara Nieto Alba Gomez Lorea Laskurain	Astelehen eta Asteazkenak	19:15-20:15

- Pilotariak distantziak mantenduz sartuko dira frontoira, entrenatzaileak tenperatura hartuko die eta gelarekin eskuak garbituko dituzte.
- 8 partaide baino gutxiago egongo direnez talde bakoitzean, sarrera-irteera ate berdinetik izango da.
- Taldeen artean, 5 minutuko tartea errespetatuko da sarrera-irteeretan.

- Ez da aldagarik erabiliko. Pilotariak etxetik jantzita etorriko dira. Kaletik dakartzaten oinetakoak erabili behar badituzte, aurretik desinfektatuko dituzte sarrerako alfonbran, eta bestela oinetakoak aldatuko dituzte.

- Pilotari edo entrenatzaile batek positibo emanez gero berehala informatuko dira bai berarekin harremana izandako pertsonak baita Udala ere eta indarrean dagoen COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den prebentzioari buruz Eusko Jaurlaritzak emandako aginduek eskatzen dutena beteko da.

### **Bigarren protokoloa (partiduak)**

Erabilera ordutegia jaialdi bakoitzerako zehaztuko da arduradunen bidez, ahal den bezain laister. Esku-pilota: Gorka Otadui / Pala: Sorkunde Viguera

- Pilotariak distantziak mantenduz sartuko dira frontoira, entrenatzaileak tenperatura hartuko die eta gelarekin eskuak garbituko dituzte.

- Ez da aldagarik erabiliko. Pilotariak etxetik jantzita etorriko dira. Kaletik dakartzaten oinetakoak erabili behar badituzte, aurretik desinfektatuko dituzte sarrerako alfonbran, eta bestela oinetakoak aldatuko dituzte.

- Pilotari edo entrenatzaile batek positibo emanez gero berehala informatuko dira bai berarekin harremana izandako pertsonak baita Udala ere eta indarrean dagoen COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den prebentzioari buruz Eusko Jaurlaritzak emandako aginduek eskatzen dutena beteko da.

- Jendearen edukierari eta antolamenduari dagokienez:

- UDALAK noranzko bakarreko zirkulazio-ibilbideak finkatu beharko ditu, bai frontoi barruan, bai sarbide eta irteeretan.
- UDALAK kartelen bidez adierazi beharko du pilotalekuaren gehieneko edukiera.
- Elkartek beharrezko laguntzaileak izango ditu INSTALAZIOAK horretarako prestatutako eserlekuetan ikusleak kokatzeko. Pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak bete beharko dira.
- Elkartearen erantzukizuna izango da zutik jenderik ez egotea.
- Elkartearen erantzukizuna izango da jaialdia egiten den unean Eusko Jaurlaritzak baimendutako edukiera eta gehieneko edukiera ez gainditzea.

- Partidan erabili beharreko pilotak Elkartek edota klub aurkariak emango dituzte. Partida amaitzean klub bakoitzak bereak desinfektatu beharko ditu, horretarako produktu egokiarekin; beharrezko materiala klub bakoitzak jarriko du.

- Sariak emateko zeremonia egiten bada, honako irizpide hauen arabera egin beharko da:

- Elkartearen ardura izango da sari-banaketan parte hartzen duten guztiek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.
- Banatu beharreko sari guztiak (kopak, dominak, txapelak) Elkartek berak ekarritako produktu egokiekin desinfektatu beharko ditu aldeztu aurretik.

- Elkartek ezin izango ditu jarduera ludiko edo komertzial paraleloak antolatu, adibidez, zozketak.

Berrizen, 2020ko irailaren 14ean

ASIER BERASALUZE  
Oizpe Pilota Taldea

